

KONTROL MOZIOA

Morlanseko metroaren lanak direla-eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko maiatzaren 16an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Morlansen egiten ari diren metroaren lanak direla eta, sorgailu bat dago martxan bertan egun osoz. Sorgailuak zarata handia egiten du, eta bizilagunek aspaldi adierazi dute haien kexa. Urteak dira zaratak eta obraren ondorioak pairatzen dituztela haien etxeetan.

Arazoak bi dira: alde batetik, zarata handia dela eta etxe barruetan ere nabari dela, eta bestetik, desorduetan martxan egon izan dela sorgailua, berezko ordua (22:00) baina beranduago arte, bizilagunen ohiko loa eta atsedena ere oztopatuz.

Zaratak direla-eta jaso ditugun bizilagunen azken kexak apirilaren 26ko eta maiatzaren 2ko gauei dagozkie. Bizilagunek esan digutenez, maiatzaren 2ko gauean metroaren lanen sorgailua goizeko 01:30era arte piztuta egon zen. Zarata handia atereaz eta bizilagunen gaueko atsedena oztopatuz.

Urteak dira bizilagunek metroaren lanen zaratak pairatzen dituztela eta horiek murrizteko neurriak hartzea dagokio Udal Gobernuari bizilagunen ongi beharrez. Maiatzaren 16an landutako interpelazioari emandako erantzunean, ordea, Udal Gobernuak ez zuen arazo hau konpontzeko konpromiso garbirik hartu.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Morlanseko metroaren lanek sortutako zaratak direla eta, bizilagunek horrela eskatzen eta behar dutenean Donostiako Udaltzaingoak neurketak egin ditzala, eta neurketak arautakoak baina altuagoak direnean neurriak har ditzala horiek zuzentzeko.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Morlanseko metroaren lanetan dagokien ordutegia errespetatzeko eta sortutako zaratak araudiaren barnean egon daitezen ziurtatzako neurriak har ditzala, bizilagunek dagokien atseden hartu ahal izateko.

Donostian, 2022ko maiatzaren 20an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia